

FUNTZESKO JARDUERAK

Gure proiektua funtziona dezan, gauzarik garrantzitsuena bezeroa ezagutzea eta bezeroarekin harremanetan egotea da. Baita ere, inportantzia handia du bezeroek aukeratzen duten lekua ezagutzea beraiei bertako gauza ezanguratsuak ahalik eta ondoen azaldu ahal izateko.

Aipagarria da ere gure bezeroak bere bidaia egiterakoan aukeratzen duten lekuan dauden edozein arazo konpontzeko gai izan behar gara eta, baita ere, beraien beharretara erantzuteko kapaz izan behar gara.

Informatikan aditu bat izan behar dugu gure webgunean edo aplikazioan edozein arazo izatearen aurrean, berehala konpondu ahal izateko eta ahalik eta arazo gutxien egoteko.

Jendeak gure enpresa ahalik eta ondoen ezagutzeko, propaganda egitea aukera on bat zela iruditu zitzaigun. Horretarako, "Correos" enpresa kontratatuko dugu aukera hori errezago bete ahal izateko.

Balio-proposamena sortzeko hainbat jarduera egin behar ditugu; adibidez, lehenik eta behin, bezeroak aukeratzen duen tokiaren ikerketa bat egin behar dugu. Alde batetik, herrialde horretan nagusitzen diren gabeziak aztertu eta murriztu ahal izateko hainbat irtenbide aurkitzea izango da gure xede nagusia.